

TXISTULARIAK

Urretxindorra esaten dautosen Enbeita gure bersolariak olako au idatzi eban:

Euskalerrian dagon ainbat txistulari
euren txistuz alaitzen
baserri ta uri.
Zarrak poztuten ditu,
gazteak dantzari,
eskerrak gure euskaldun
txistulariai".

Olango bat da Aldekoa'tar Alexander.

Durango-aldean buru-jabe, soiñu onen adierazle onenentzat artzen dabe.

Aldekoa 1920'an jaioa dogu eta Berriz'ko San Lorentzo auzoa da bere jaio-leku, Markiña'rantza doan bi-dearen ondoan. Antxe aurkitu zan irakasle, Amezua'ren lana osotuko ebana.

Jose Antonio Agirre'k bere etxe-ondoan batzoki bat idegi eban 1932n.urtean. San Salvador'eko auzokideak diranak Laspiur'tar Leon, Eibar'eko txistularien egundoko trebetasuna txistuari soiñuak aterateko eukazana ederretsi eben. Laspiur izan zan eginbear ori atsegintzera deitua eta gero berau izan zan gure Berriz'tararren soiñu-irakasle.

Onen aitak, Eibar'eko musikarieren jardun-aldia ikusirik, eta lagun baten aolkua entzunda, Alexander bere semeak txistua jotzen ikasi bear ebala erabagi eban, eta orretarako maisu ona Laspiur jauna izango zala. Erabagi onek gaur Durango-aldean onentzat artzen dan txistulariaren oroimenean betirako izango dan txistularia sortu eban.

Eta zer diño txistulariak berak?

— Nire aitak Laspiur'en ondora eroan ninduanean, onek lenengo itaundu eustana solfeoa ete nekian izan zan. Eta nire erantzuna ezetza izan zan lez, ikasteko esan eustan.

Eta orixe egiten asi nintzan abade baten laguntzaz eta ille bi geroago, gudea sortu baiño lenago, lau urtean nire irakaslea izango zanaren aurrera aurkeztu nintzan. Gudea asi zanerako Aldekoa gazteak "Idiarena"ren aldakuntza nastetsuak ikasi ebazan.

Ogei ta amaseiko guda latzak Berriz'ko txistulariari garaia, egokiorea kendu eutson, Begoña'n izan zan Udalaxeak eratutako norgeiagora joateko.

Afrika'ra joan bear izan ebanean gudari-lagunak arrituta itzi ebazan soiñu-tresna bakan onegaz.

Urteak igaroz, jazoriko au egin zan ipuiñik atsegingarriena bere oroimenerako. Berak esan eustanetik ikusten da: "Ni gudari nintzala, Afrika'ko oialpean kapitai soiñu-zale batek abesbatzaren soiñuren bat jotzen iñok ete ekian itaundu eban; baiña nik an ez neukan txisturik. Nire lagun bat baimenaz joan zan Europa'ra eta Berriz'era eldu eta niri ezer esan barik txistua ekarri eban. Afrika'ko oialpean txistua jotzen entzun ninduanean Alferrez batek esan eustan gabaz kapitaiaren txabolara joateko. Emen, Aragoitarrak ziran lez, eurentzat Aragoi'ko jota bat jo neban eta gero "Idiarena" aldakuntzak.

Jardun-aldia amaitu nebanean, txistua eskatu eustan. Emon neutson. Begiratu eta ikusi eban alde guztietatik eta arrituta itaundu eustan zelan iru zulo bakarrik daukazala ain eres-mota zoragarriak atera leikezan. Beingoan deitu eutson turutari eta esan eutson. "Zoaz zure turuta orregaz, emen dago soiñu-tresna bat iru zuloz zureak baiño askoz eres-mota obeak ateraten dauzana".

Jazokizun orrean ostean, guda-ostean izan dauzan barrien artean, batzuk mingarriak izan dira: Bere aita atzerriratu eben, bere anai bat bonbaketa baten ondoren lez il egin zan eta beste anai bat atxillotu eta langileen batalloira sartu.

Aldekoa'tar Alexander bildurtu egin zan eta txistularitza bera be jarraitzeko bidean ete egoan zalantzak eukazan: "Nire semeak eta gazteak geienez ez dira gauza ekiñaldiak egiteko, ez dauke orretarako nik izan dodan beste gogo".

Jai-aldiak bizkortuten eta sututen berak eukan ainbeste urtetako bizi-ikasia atsegingarria zan: Berriz'en, Yurreta'n, Garai'n eta inguruetan talde ezbaridiñen esker ona lortu eban eta ezaupidea irabazi be bai. Sarritan egin dautsoe jai eta goraldtu dabe Aldekoa'tar Alexander txistulari ospetsua. Azkenengoz aurtengo dagonillaren 3'an Garai erritxuan jai zoragarria egin dautsoe.

EGILUZE'k